

HARANBURU ALTUNA ETA BIOK



Banuen gogoia Luis Haranburu Altunarekin izan nuen harremanari buruzko gogoeta txiki bat egiteko. Eta harreman hori laburbiltzea ez da oso zaila: duela zenbait urte, liburu batzuk argitaratu zizkidan. Besterik ez. Hau da, horren truke ez nion ez nire arima ez beste ezer eman. Hala ere, badaude zenbait zehaztasun, aipatu nahi nituzkeenak.

Egun batean telefonoa hoska hasi zitzaidan bulegoan. Hariaz bestaldeko ahots batek azaldu zidan Luis Haranburu Altuna zela, argitaratzailea zela eta itzulpen batzuk egin behar zituela. Bi itzulpen ziren, biak ingelesetik gaztelerara: Felicity Porter-ren “Felicity” narrazioa; eta beste bi liburu, azkenean argitaratu ezin izan zituenak beste norbaitek aurrea hartu ziolako egile-eskubideak eskuratzeko orduan –egin nituen bi itzulpenak berdin-berdin ordaindu bazizkidan ere (“La pareja multiorgásmica” bata eta “Masajes íntimos para parejas” bestea)–.

Une hartan, Haranburu Altunari buruz ez nekien gauza handirik, Elhuyar Entziklopediak zekarren informazioa kenduta, hau da, idazle eta argitaratzaile historiko bat zela –nolabait esateko– eta idazle euskaldun askotxoren idazlanak argitaratuak zituela, besteak beste, Aresti, Saizarbitoria, Atxaga, Azurmendi, Sarasola edota Krutwingen idazlanak. Jakin ere banekien Altunaren ibilbide profesionala Kriseilu argitaletxeari loturik zegoela, antzerki-lan ugari idatzi zituela eta, batez ere, “Itxasoak ez du esperantzarik” kontakizun polit baten egilea zela –uste dut bere garaian best-seller txiki bat izatera heldu zela (Altunaren beste libururik ez neukan irakurrita, hori bakarrik, kasualitatez, eta gainera gustatu egin zitzaidan, bere momentuan, zuela urte pila bat, bera ezagutu baino askoz lehenago)–.

Hasteko, nire erreferentzia hori zen. Altuna noizbait telebistan ikusita neukan, EITBn, baina agertzen zen saioan arreta handirik jarri gabe (inoiz ez naute gehiegi erakarri tertuliano-saioek, mahai-inguruek, eta abarrek). EAJ-tik gertu zegoela uste nuen; baina ezin nintekeen erratuagorik egon (beranduago egiaztatu ahal izango nuen bezala).

Literatura-zalea nintzela jakin zuenean, nire liburuetan interesa erakutsi zuen eta ordura arte idatzita neukan guztia argitaratzeko prest azaldu zen. Nire literatur-obra apalaz interesaturik agertu diren editore bakanetako bat izan dela aitortu behar dizuet, eta ia-ia “benetako idazle bat bezala” sentiarazi ninduela.

Dena den, aurrerago ohartuko nintzenez, Haranburu Altunaren helburu bakarra ez zen nire liburuak edo beste batzuenak argitaratzea; aitzitik, beti zeukan bigarren asmo bat, nire iritziz, eta bigarren asmo hori bere ideologiaren aldeko “akolitoak” bilatzea baino ez zen, hau da, euskal gizarteari buruz berak zeukan ikuspegia berresten lagunduko zioten euskal intelektual, euskal idazle talde bat bildu nahi zuen bere argitaletxearen

inguruan. Altunaren gizarte-ikuspegia, ordea, oso loturik dago espainiar konstituzionalismoari, eta ondorioz, mundu abertzalearen aurkakoa da, erabat; eta ezker abertzalearen aurkakoa izateaz gain, alderdi abertzale moderatuen aurkakoa ere bada (EAJren aurkakoa, kasu).

Dena den, gauza horiez guztiez poliki-poliki ohartuz joan nintzen. Eta ni bakarrik ez, baita Hirian argitaratzen zuten beste batzuk ere. Liburu-aurrezpenen ostean, bazkaltzera gonbidatu ohi gintuen, eta orduan ez pentsa lotsati-edo ibiltzen zenik bere iritzi politikoak mahai gainean jartzeko orduan. Iritzi haietako asko entzunda, harri eta zur geratzen ginen gehienok, argitaratzaile euskaldun baten ahotik ez baituzu horrelako hitzak entzutea espero –ez dakit iritzi anakronikoak ote ziren euskal munduarekiko, baina bai behintzat izugarri ezohikoak euskal idazlerik gehienok geure burua identifikatu ohi dugun euskal sentimenduarekiko.

Bazkari haietako batean, hain harri eta zur utzi ohi gintuzten iritzi haietako bat bota zuela gogoan dut, eta nire ondoan zegoen idazle bat (euskaltzain bat), Haranburu komunera joateko mahaitik altxatu zela aprobeixaturik, zera esan zuen: “Ezinezkoa da berak horrela pentsatzea. Ez da posible”. Bueno ba, bai, posible zen, bai horixe...

Baina puntu honetara iritsita, neure burua politikoki definitzeko gogoan dut: politikan parte hartzeko orduan nahiko apatiko eta uzkur agertu izan naiz beti, baina horrek ez du esan nahi hauteskunde-eguna denean etxean geratzen naizenik, edo ez du ere esan nahi nire ideiak, nire helburu politiko apalak eta nire begikotasun politiko jakinak ez ditudunik (nahiz eta beste garaikide batzuenak bezain biziak –ziur aski– ez izan).

Alde horretatik, gure herrian egindako lehen hauteskundeetan eta hurrengoetan, nire botoa Ezker Abertzalearentzat izan zela esango dizuet. Gero, trantsizioaren unerik gogorrenetan, halako etsipen batean jausi nintzen (baina ezker abertzaleari botoa eman ezik, ez nekien botoa nori eman). Behin, Ibarretxeri eman nion botoa, batez ere Eusko Jaurlaritza konstituzionalisten eskuetan erortzea ekidin nahian, HB legez kanpo utzi zutenean. Aurrerago, Aralar sortu zenean, berehala identifikatu nintzen alderdi abertzale berriarekin, eta alderdi politiko horretan hasieratik bertatik oso engaiaturik egon den senide batek animatuta, Aralarren eman nuen izena, hau da, Aralarko “militantea” egin nintzen –komatxo artean esanda, 10 euroko kuota ordaintzera mugatu baitzen nire “militantzia”-. Gero, hamar urteren buruan, eta Sortu eta Bildu eratu zirenean, Aralarren baja hartu eta orduz geroztik boto-emaile bat baino ez naiz izan berriro (izatea gehien gustatzen zaidana, alegia) eta nire botoa orain arte, behintzat, Bildurentzat izan da.

Oro har, enpatia sentitzen dut alderdi abertzale guztiekiko, eta EAJri aitortu egin behar diot erakunde oso garrantzitsuak sortu eta garatzeko ardura ondo bete zuela, oso alderdi pragmatikoa izan dela eta hasieratik bertatik ulertu zuela euskal erakunde sendoak eratzearen garrantzia; horrez gain, 1936. urtean bere tokian egoten jakin zuen, eta meritu hori ere ez zait inoiz oharkabeen pasatu (alde horretatik, EAJren kultura demokratikoak ez du zerikusirik Alderdi Popularrarenarekin, zorionez –PPkoen aurretikoak 1936an nortzuk izan ziren badakigu eta–).

Beraz, politikoki hitz eginez, ni –gutxi gorabehera– hori izan naiz. Eta hori bera izaten jarraitzen dut –gutxi gorabehera–. Ikusten duzuen bezala, ez naiz heroia; beharbada –politikoki hitz eginez– baliteke ni pixka bat ilargian bizitzea, baina funtsezkoari

dagokionez, badakit non nabilen eta non ez nabilen –nire kontraesanak baditudala onartzen dudan arren (baina nork ez ditu?).

Gogoan dut, ezen, okasio batean, Altuna eta biok geratuak ginela elkarrekin bazkaltzeko eta hurrengo argitalpenaren zehaztasunei buruz hitz egiteko, eta hark politikari buruz eginiko zenbait iruzkinak harri eta zur uzten nindutela ikusi zuenean, zera esan zuen ozenki, baina bere buruarekin hitz egingo balu bezala: “Honek (nitaz) oraindik ez daki nor naizen, nola pentsatzen dudan, baina laster jakingo du”. Aurrerago, politika munduan jarrera bat har nezan, “busti nendin” (haren hitzetan) nahi izan zuen. Pentsatzen dut artean ez zekiela Aralarkoa nintzela. Eta jakin zuenean, ba ez zion grazia handirik egin. Eta egun batean, ETaren indarkeriari buruzko zenbait gauza hark esan eta gero, eta torturaren praktikari buruzko beste zenbait gauza nik bota ondoren, agur esan genion elkarri eta orduz geroztik ez gara berriro elkarrekin egon. Biok (agur-hitzik gabe) bukatutzat jo genituen gure ordura arteko lankidetzeta eta harreman profesionala – editorea/itzultzaile-idazlea–.

Eta, esan bezala, orduz geroztik ez dut hartaz beste ezer jakin. Urte batzuk igaro dira, eta noizbait EiTBN ikusi izan dudanean, nahiago izan dut kanalez aldatzea haren iritzi politiko –niretzat– negargarriak entzun beharrik ez izateko, zeinak benetan iruditzen zaizkidan ia-ia eskuin muturreko ideologia batenak, behintzat euskal gatazkari, presoei, eta abarrei dagokienez.

Argi gera bedi: ni ez nintzen jakaz aldatu nire liburuak Hiria argitaletxean plazaratzeko, eta Haranburu Altuna ere ez zen jakaz aldatu nire liburuak bere argitaletxean argitaratzeko. Gorago esan dudan moduan, ez nuen nire arima saldu argitalpen batzuen truke.

Argitaratzaile eta argitaletxe modura, hasieratik bertatik ohartu nintzen ageriko mugak zituela; beraz, nire liburuen gaineko eskubideak laga nizkion euskarri tradizionalan bakarrik (paperean alegia) plazara zitzan, baina nire liburuen argitalpen digitalen gaineko eskubideei (Internet, CD’ak...) inolaz ere uko egin gabe. Eta ez dakizue zenbat pozten naizen horretaz, zeren Hirian argitaratutako liburuak nik ez dakit honez gero non egongo ote diren, ez dakit ezta titulu bakoitzeko zenbat ale atera zituen ere, baina badakit ordea non dagoen nire Marjinalia Bilduma. Nire liburuen gaineko kontrola formatu digitalean galdu ez izana erabaki jakintsua izan zen nire aldetik (eta jasota gera bedi ni ez naizela inoiz oso eskuzabala izan “erabaki jakintsuak” hartzen nire bizitzan, tamalez).

Hirian argitaratu izanaren alde onak? Bueno, obra bat argitaratu gabe baldin badaukazu eta argitaratu egiten badizute eta gainera euskarri tradizionalan egiten badute, horra hor alde ona. Eta, ea zer gertatzen den alde txarrarekin? Beharbada, inporta zaizkizun pertsonak eta giza taldeek pentsa dezaketela, ezen, ideologikoki hain antiabertzalea den norbaiten argitaletxean argitaratu baduzu, ideologia horrekin bat egiten duzulako izan dela. Dena den, alde horretatik, arriskua alderantziz ere uler daiteke, zeren sentimendu aldetik abertzalea den idazle baten liburuak argitaratzen baditu abertzalea ez den editore batek, Editore horrentzat garrantzitsuak diren pertsonak eta giza taldeek ere pentsa lezakete hori egin duela idazle horren idearioarekin edo sentimendu abertzalearekin nolabait identifikatzen delako, edo ideiak oso garbi ez dituelako edo pittin bat oportunista delako...

Haren eta bion arteko harremanak azkenean funtzionatu ez bazuen, arrazoi horrengatik izango zen, nik uste. Politikarekin baino gehiago, kulturarekin obsesionaturiko editoreentzat argitaratu izatea gustatuko zitzaidakeen. Areago, politikoki desberdinak izan daitezkeen edo nire ideia guztiekin bat ez datozkeen editoreentzat argitaratzea ez litzaidake gehiegi inportako, baldin eta diskrezioz jokatzeko gai izango balira, euren sentimen politiko pertsonalak esparru pribaturako utziz eta euren kultur jarduerak esparru publikorako gordez, eta horrela, euren argitaletxearen onuraz fierki begiratu, zeren, azken batean horixe behar luke izan editore baten azken helburuak.

Gainerakoan, Haranburu Altuna trataturako pertsona atsegina zen, solaskide ona, kulturaduna, hitz-jario onekoa, ardo ona preziatzen zuen eta ahozuria ere bazen. Ziur aski, bere haragian bizi izandako gertaerengatik mendira jotzen bukatu zuela uste dut, nolabait esateko. Egia esan, bizi izan dugun eta –zorionez, intentsitate txikiagoarekin– oraindik bizi dugun gatazkak pixka bat erradikalizatu gintuen herritar guztiok, eta bando bakoitzaren ideietan eta jarreretan arranguraren hazia erein eta halako integrismo-puntu bat zabaldu zuen horrek, batez ere gatazkan aktiboki parte hartu zutenen artean. Ez hainbeste, ordea, gatazkaren anfiteatroan – indiferentziaz ez, baina bai akaso pasibotasunez – kokatu ginenon artean, gertaeren bilakaera garrantzari so.

Lehengo egunean, Altuna berriz ere agertu zen EiTBko tertuliano-saio horietako batean, eta hitzak falta zitzaizkion Guardia Zibilak Euskadi “baketzearen alde” egindako lana goratu eta laudatzeko. Une hartan, niri honako burutazio hau etorri zitzaidan: “Ez nintzateke harrituko egunen batean norbaitek Haranburu Altuna gonbidatuko balu paella on bat jatera Valdemoroko lekuren batean, zeinarez izenaz ez baitut gogoratu nahi...”.

Tira ba, saia gaitezen umore onari eusten, zeren, Euskadin bizitzeko, ezinbestekoa zaigu.

Ez dizut ezer txarrik opa, Haranburu Altuna, bihotz-bihotzez esaten dizut; eta espero dut zuk ere ezer txarrik opa ez izatea euskaldun jendeari.

Suteari ura bota behar zaio itzaltzeko, su gehiago ez.